

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Hasierako onespena ematea OA 2.58: S. T. 5 eremuaren –parke teknologikoa industria-sektorea (lehengo 11. sektorea) –hamaikagarren aldaketari

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko ekainaren 19an egindako ohiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

1. Hasierako onespena ematea indarrean dagoen Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren OA 2.58: ST-5 parke teknologikoa industria-sektorearen (lehengo 11. sektorea) plan partzialaren hamaikagarren aldaketari, espedientearen jasota dagoen proiektuaren arabera. Hala ere, behin betiko onartu aurretik, dokumentazio berria aurkeztu beharko da, 2026ko ekainaren 11ko txosten teknikoan adierazitakoaren arabera. Hasierako onespene hori ingurumen-txosten estrategikotik ondorioztatzen denaren baldintzapean dago.

2. Espedientea jendaurrean jartzea, hogei egunerako eta zabalkunderik handieneko egunkarian edo egunkarietan iragarkiak argitaratuz, horrek eragiten diola uste duen orok aztertzerik izan dezan, baita egokitzen dituen alegazioak edo oharak aurkezterik ere.

3. Etxebizitzaren, Lurzoruaren eta Hirigintzaren arloko Presako Neurrien abenduaren 11ko 6/2025 Legearen bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, txosten sektorial bakarra egiteko eskatzen da, Arabako Foru Aldundiaren mendeko organoei dagokienez.

4. Planak eragindako administrazio-batzarrei plan partzialaren aldaketa bidaltzea, hogei eguneko epean txostena egin dezaten. Epe hori amaituta erantzunik edo ebazpenik jaso ez bada, izapidearekin jarraitu ahal izango da. Udal-zerbitzu teknikoei ere bidaliko zaie, txostena egin dezaten eta izan ditzaketen eraginei buruzko informazioa eman dezaten.

5. Proiektua Uraren Euskal Agentziari igortzea, araudiaren arabera dagokion eskumenari buruzko txostena egin dezan.

6. AMVISARI sareen nahikotasunari eta hornidurari buruzko txostena eskatzea.

7. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1.d) artikulua arabera, tramitazioak behartutako nahitaezko txosten lotesleetakoren bat jaso ezean, eten egingo da behin betiko onesteko epea.

8. Aldakuntza indarrean sartu arte, etetea eremu horren antolamendu berriaren kontrakoak diren eremu edo erabileren onarpen, baimen eta hirigintza-lizentzia mota ororen emakida, betiere, gehienez urtebetez.

Dosierra Vitoria-Gasteizko Udaleko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25—, adierazitako epean, ALHAOn argitaratzen denetik.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko ekainaren 23an

Alkate-lehendakaria

MAIDER ETXEBARRIA GARCÍA